

Maider
ZapirainJoxean Ormazabal Berasategi
(1948-2010 Zegama, Gipuzkoa)

ASTOA IKUSI NUEN

Doinua: Hitz egin zionian B / Astoa ikusi nuen B
Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Zarauzko ikastolan (Gipuzkoan), 1972-73 ikasturtean, irakasle talde sortzailea elkartu zen. Haietako bat Imanol Urbietak musikaria zen eta haur kantuetarako hitzak eskatzen zizkien lankide zituen idazleei: Joxean Ormazabal, Andu Lertxundi, Juan Martin Elexpuru. Bertso hauek Joxean Ormazabalek jarri zituen, doinua ere propio aukeratuta: "Hitz egin zionian" aire herrikoiaz. Imanol Urbietak kantu egin eta "Haur kantarien birlorak" liburuxka eta kasetean argitaratu zuen (1974. Elkar-G.I.E.). Eskoletan ezagun egin zen oso.

- 1 Astoa ikusi nuen **betaurrekoekin** buruan txapela eta **gabardinarekin**.
Ile luzea eta **bigotearekin***
hizketan egon nintzen atzo **berarekin**.
- 2 Astoak esan zidan triste **zegoela** oso zatarra zela bere **ikastola** berak gure gelara etorri nahi **zuela** gure artean ondo konponduko **zela**.
- 3 Baietz esan nion nik lasai **etortzeko** arkatza eta bloka* dendan **erosteko** astoa izan arren trankil egoteko **asko** ikasi eta txintxo **portatzeko***.
- 4 Astoa etorri zen hurrengo **goizean** jantzi polit bat zeukan jantzirik **soinean**.
Maixuak esan zion: "eseri **lurrean** astotxo ez baitzera kabitzen* **mahaiean**".
- 5 Hondartzako eguna iritsi **zenean** astoa portero* eta denak **futbolean**.
Baloi batek jo zuen astoa **buruan** lurrera erori zen hiltzeko **zorian**.
- 6 Azkar deitu zioten **sendagileari** baita Donostiako **anbulantziari**.
Orain klinikan dagon asto **gaixoari** esan nahi genioke "lehenbailehen **etorri**".



bigotearekin = mustatxarekin
bloka = kaiera
portatzeko = ibiltzeko

kabitzen = sartzen
portero = atezain

